



NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALEKO BATZORDEEN ETA LANTALDEEN BARNE-ERREGIMENA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

Dokumentu honen bitartez, Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialean funtzionamendurako eta parte hartzeko egun dauden egiturak garatzeko, erregulatzeko eta antolatzeko proposamena egin nahi dugu. Egitura horiek Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren (NGLEO) Estatutueta V. tituluan jasotzen dira, 52. artikulutik 56. artikulura bitartean, biak barne.

NGLEO estatutuak

1).- Batzorde horietan parte hartzeko, NGLEOko Batzordeak arautzen dituen erregelamendua ezagutu beharko dute parte hartu nahi duten pertsonak eta konpromiso hori formalizatu, NGLEOk emandako ereduak entregatuz (2. Eranskina).

Besteak beste, honako eginkizun hauek bete beharko dira: Gobernu Batzordeari aholkularitza eskaintzea; lanerako planak, ikerketa-azterketak eta Gizarte Lanarekin zerikusia duten proiektuak garatzea; eta Batzar Orokorrei, ohikoei zein ezohikoei, urtean zehar garatutako jardueren berri ematea.

Horretarako, txosten bat aurkeztuko diote batzordeek Gobernu Batzordeari, urtean zehar egindako jarduerekin nahiz horien parte-hartze eta asebetetze-mailarekin. Era berean, hurrengo urtean gauzatu beharreko proiektua gehituko da. Hori guztia urteko bi Batzarretan azalduko da, horren berri izan dezaten (egindako jardueren plana lehen batzarrean eta jardueren aurreikuspena bigarren batzarrean) (3. Eranskina).

2).- Batzordeak irekiak izango dira, eta edozein elkargokidek atxiki ahal izango du haietara. Elkargokide ez diren profesionalek parte hartu ahal izango dute Batzordeak hala onartutakoan.

Gobernu Batzordeko kideren batek koordinatu ezin badu, erantzukizun hori Batzordeko kide batek izango du, Batzordeak berak proposatuta eta Gobernu Batzordeak onartuta.

Kide horren egitekoa izango da Gobernu Batzordeari informazioa ematea eta ekimenak proposatzea, berak edo Batzordeak eskatu ahala; modu horretan, horretarako deitutako Gobernu Batzordearen bilerara joango da, eta, bertan, hitza eta botoarekin parte hartuko du aztertu eta baloratu beharreko gaiari dagokionean.

3).- Gobernu Batzordeak, Elkargoaren urteko gastuen aurrekontuan, zenbateko finko bat jarriko du Batzorde bakoitzerako (aurrekontua Gobernu Batzordeak aurkezten du eta Batzordeak onartu).

Zenbateko hori Batzordearen beraren gastuak ordaintzera bideratuko da; kontzeptuak araudi honetan zehazten dira.



Batzordearen beraren gastuak izango dira, besteak beste, batzordearen jarduerarekin lotutako beste talde edo erakunde batzuekin konektatzeko edo elkartzeko egindako joan-etorriak.

Zenbatekoa finkoa izango da, eta, batzorderen batek zenbateko hori gainditzea eskatzen badu, Batzordeak Gobernu Batzordeari eskatu ahal izango dio gastu hori zehazten eta justifikatzen duen txostenaren bitartez; azkenik, zenbatekoa Gobernu Batzordeak onartuko du. Onartzen bada, Batzorde eta lantalde horientzat bideratutako eta onartutako beste aurrekontu-partida baten kontura ordainduko da; hots, ezarritako helburuetarako ekitaldian gastatua izan ez den partidaren kontura. Aurrekontu-partidarik erabiltzeko ez badago, berriz, hurrengo ekitaldian proposatzeko eta onartzeko utziko da.

Bestalde, Batzorderen batek gastu hori egiten ez badu, aurrekontuko partida hori beste Batzorde edo lantalde batzuen gastuetarako erabili ahal izango da, aurrekontuko gastua baino handiagoa aurreikusitakoan eta horrela eskatzen badute gastu hori zehazten eta justifikatzen duen txostenaren bitartez, eta txostena Gobernu Batzordeak onartzen badu.

Gastua egoera edo kasu zehatz bakoitzerako zehaztutako forma eta moduan justifikatuko da (*5. Eranskina*).

4).- Kopurua, osaera eta eskumenak aztertu edo ebatzi daitezkeen beharrek eta xedeek zehaztuko dituzte une bakoitzean. ¹(*Estatutuetako 52. artikulua, 2. paragrafoa*).

Batzorde bakoitzak 3tik 15 kidera bitartean izatea izango litzateke onena, baina kopuru horrek ez du mugatuko inola ere Batzorde bakoitzeko kideen kopurua.

5).- Batzordeek, horrela iruditzen bazaie, prestakuntza-proposamenak egin ahal izango dituzte; proposamen horiek Gobernu Batzordeak onartuko ditu prestakuntza-planeari sartzeko, horiek egiteko epeak kontuan hartuta.

Proposamena Batzordeko kideentzat bada, horren kostua Batzorde horretara bideratutako eta onartutako aurrekontuaren kontura egingo da, betiere bat badator Batzordea garatzen ari den lanarekin. Era berean, prestakuntza horretan parte hartu ahal izango du interesa duen edozein elkargokidek.

Batzordeak duen aurrekontu-zenbatekoa behar adinakoa ez bada horren kostua estaltzeko, aipatu prestakuntzara joandakoekin eta izena emateko ezarritako epean izena emandakoekin batera finantzatu ahal izango da. Horren kostua estali ezin bada, erregelamendu honetako aurreko 3. puntuan (4. paragrafoa) ezarritakoaren arabera jokatuko da.

6).- Batzordeen erabakiak kideen gehiengo soilez hartuko dira, eta gutxienez kideen bi hereneko quoruma beharko da erabakiak baliozkoak izateko.

¹ 52. ARTIKULUA. LAN-BATZORDEAK. Batzordeak irekiak izango dira, eta edozein elkargokidek atxiki ahal izango du haietara. Elkargokideak ez diren profesionalak parte hartu ahal izango dute Gobernu Batzordeak horrela onartutakoan.



7).- Batzordeek teknologia berrietan oinarritutako lan-dinamikak eratu behar dituzte, gure komunitateko sakabanatze geografikoa eta kilometro-distantziak oztopo izan ez daitezen norbait kanpoan geratzeko. Ahalegina egingo da hodeian instalatutako lan-espazioak ezartzeko eta parte-hartzea errazten duten beste bitarteko batzuk erabiltzeko.

Batzordeetan ezarritako bileretara joateko eta horietan parte hartzeko, joan-etorrietako kilometroak ordainduko dira (GLKNk ezarritako prezioa kilometroko); halaber, autobidea, egonez gero, edo erabilitako garraio publikoaren txartela ordainduko dira, betiere egoitzaatik bilera-lekura 10 km edo gehiago baldin badaude.

8).- Batzordeko kideek banaka nahiz taldean parte hartu ahal izango dute foroetan, prentsan, irratan edo telebistan, Gobernu Batzordeari edo bertako kideei laguntzeko, Gobernu Batzordeak hala eskatuta.

Era berean, batzordekideek, baita ere banaka edo taldean, foroetan, prentsan, irratan edo telebistan parte hartzeko eskatu ahal izango dute, haiek eskatuta edo erakunde edo talde baten eskariz, baina hori Gobernu Batzordeak onartu beharko du, eta Gobernu Batzordeak izendatutako kideren batek lagunduko die esku-hartze horietako edozeinetara. Halaber, Batzordeko kideek, banaka edo taldean, Gobernu Batzordeari eskatu ahal izango diote komunikabide ezberdinetan argitalpenak egiteko, eta argitalpen hori lagunduko dute, esku-hartzea Gobernu Batzordeak onar dezan.

Aurreko edozein kasutan, Batzordeko kideek, banaka edo taldean, Gobernu Batzordeari jakinarazi beharko diote, tratatu ahal izateko behar adinako aurrerapenarekin; alegia, ekitaldia egin edo argitalpena aurkeztu aurretik gutxienez 10 egun lehenago adieraziko da, eta ekitaldiaren xedearen eta edukiaren berri emango da garatuko den forma eta moduan, bai eta argitalpenaren berri ere, hala badagokio.

9).- Batzordea desegiteko arrazoiak hauek izango dira:

- Batzordeko kideek uste izatea hura sortzea eragin zuen jarduera amaitu dela.
- Ezarritako akordioak ezin lortzea ².
- Lan Batzorde jakin batean gertatzen badira Gobernu Batzordearen ustez Elkargoaren Estatutuetan ezarritakoarekin bat ez datozen baldintzak, Gobernu Batzordeak proposatu ahal izango du, gehiengo soilez bozkatuta, batzorde hori desegitea Batzordearen beraren aurrean, desegiteko proposamena arrazoituz, aipatu batzordeak Gobernu Batzordearen aurrean alegatu ahal izan dezan, horretarako ezarritako epearen barnean, interesatzen zaionaren arabera. Behin izapidea burututa, Gobernu Batzordeak ebazpena emango du. Aipatu Batzordea ez

² 56. ARTIKULUA. AKORDIOAK. Batzordeen erabakiak kideen gehiengo soilez hartuko dira, eta gutxienez kideen bi hereneko quoruma beharko da erabakiak baliozkoak izan daitezen. Elkarren segidako hiru bileratan quorum hori lortzen ez bada, Batzordea desegintzat emango da, gutxienez aldi batean, eta haren eskumenak Gobernu Batzordearen eskutan geratuko dira.



badago ados Gobernu Batzordeak hartutako erabakiarekin, Estatutuen 53, b artikuluan ezarritakoari heldu ahal izango dio, analogiaz.³

10).- Azken xedapena. Gobernu Batzordeak, gehiengoaren bozketarekin, ahalmena izango du NGLEOko Gizarte Langintzako Batzordeen araudi hori aldatzeko eta Batzar Orokorrean aurkezteko, hark onar dezan.

11).- Eranskinak:

- -1. Eranskina- NGLEOko Batzorde/Lantalde berria **sortzeko eskaeraren** eredia.
- -2. Eranskina- NGLEOko Batzorde/Lantaldean **parte hartzeko konpromisoaren** eredia.
- -3. Eranskina- NGLEOko Batzorde/Lantaldeen **seihileko txostenaren** eredia.
- -4. Eranskina- NGLEOko Batzorde/Lantaldekoa izateari **Uko egiteko** / edo bertan **Baja emateko** eredia.
- -5. Eranskina- NGLEOko Batzorde/Lantaldeetako **Gastuak justifikatzeko** eredia.

³ 53. ARTIKULUA. BATZORDEAK SORTZEA. b) Elkargoko edozein kidek egin dezake, gutxienez hamar elkargokideren babesarekin, Gobernu Batzordeari idatziz eskatuta. Gobernu Batzordeak ezezkoa ematen badu, Batzar Orokorrari proposatu ahal izango dio idatziz.